

# begira

## GOGORATZEKO ETA OSPATZEKO EGUNA

2023ko ekainaren 9a · OMENALDIA ULMAKO ERRETIRATUEI

2023ko uztaila  
# 58



 **ULMA**

04



### Albisteak eta gaurkotasuna

20 urte bete ditugu Ajofrineko egoitza ireki zenetik, Toledon  
**05**

ULMA Agricolak ekoizpen lantegia eta bulegoak estreinatu ditu  
**07**

Odola ematea, konpromiso sozialaren parte  
**12**

Ibon Calvo, ULMA Taldearen lehendakari berria  
**13**

16



### Erreportajeak

Omenaldia ULMAko erretiratuei. Gogoratzeko eta ospatzeko eguna  
**16**

Bizitza osasungarri baterako errezeta  
**18**

20



### Agenda eta iradokizunak

Erretiroak maiatzak 1 - abuztuak 31  
**20**



ARGITARATZAILEA: Grupo ULMA S. Coop. Bº Garagaltza 51 20560 OÑATI, T 943 25 03 00  
ZUZENDARITZA: Carlos Sarabia | csarabia@ulma.com  
EDITORE/ERREDAKZIO KONTSEILUA: Oihane Etxebarria, Aitor Castro, Elena Goirizelaia, Maria Sendin, Sara Soria, Janire Laconcha, Nerea Burgoa, Itsaso Letamendi eta Carlos Sarabia  
DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Igone Basterra | ibasterra@ulma.com



Paper ekologikoa



**LANDER DÍAZ DE GEREÑU**  
ULMA TALDEKO LEHENDAKARI OHIA

"Hasiera bat duen guztiak dauka amaiera bat. Zortzi urte ULMA Packaging-eko Lehendakari bezala eta lau urte ULMA Taldean pasa eta gero, berriro itzuliko naiz nire lanera.

Ilusioa eta motibazioa, baina aldi berean urduritasuna eta bertigoa. Sentimendu horiek adierazi nituen orain dela lau urte horrelako zutabea idatzi behar izan nuenean kargua hartu berritan. Orain, atzera begiratzean, aurrean izango nituen erronkak irudikatu ere ez nituela egiten konturatu naiz. Berehala, mundua gelditu zuen pandemia bat etorri zen eta ondoren, MONDRAGON-ekiko harreman eredu berria lantzeko prozesua abiatu genuen. Ez dira 4 urte errazak izan!

Pasatakoak pasata, hartu nuena baino Talde indartsuagoa daukagula esan dezaket, eta ez nik egindako lanarengatik bakarrik, nire inguruan aritu diren guztien ahalegin eta kemenarengatik ere bai. Eta baita kolektibo osoaren lanarengatik, noski!

ULMA Taldea indartsu dago baina ez bere Negozioen egoerarengatik bakarrik; gure nortasun, kultura eta balioek horretara eraman gaituzte eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko prest gaude.

Eta ez izan zalantzarik: ULMA Taldea esku onetan gelditzen da. Ibon, zurea da orain bidea!"

**IBON CALVO**  
ULMA TALDEKO LEHENDAKARIA

"Duela 22 urte elkartu ziren ULMA-ren eta nire bideak eta ordutik orain arte batera egin dugu ibilbidea. Aitortu behar dut, ULMAN lanean hasi arte, Kooperatibagintzari buruz nuen informazioa hutsa zela eta ikasi dudana guztia ULMAN ikasi dudala, bizipenetatik, urteen poderioz. Urte hauen guztien ondoren bi ideia nagusi azpimarratuko nahi nituzke kooperatibagintzaren inguruan: batetik, eredu kooperatiboaren erakargarritasuna eta gaurkotasuna, eta bestetik kooperatibagintzak oinarri bezala dituen printzipio eta baloreekin dudana gertutasuna.

Orain hasi dudana 4 urteko epealdi berri honetara erantzukizunez hurbiltzen naiz, argi bait daukat Taldeko erabakiek negozioetan eta haien langileengan eragin zuzena dutela. Ilusioz heltzen diot erronka berri honi aurretik daukagun aukera berriei irtenbideak topatzeko asmoz. Eta azkenik, gogotsu sentitzen naiz, 4 urteetan biziko ditugun momentu onei eta txarrei aurre egin ahal izateko. Jadanik badut ULMA Taldean urte batzuetako esperientzia baina orain nire begirada zertxobait egokitzea tokatuko zait, egindako lan onari jarraipena emanez eta gure esperientzia kooperatiboaren balioak sendotuz. Horretarako guztion parte hartzea behar dugu, ez bait dago gauzak aurrera eramateko beste modurik.

Nire eskerrik beroenak eman nahi nizkioke Landerri azken 4 urte zail hauetan erakutsi duen irmotasun eta lanagatik. Bere alboan ikasteko aukera aparta izan dut. Jarraitu dezagun aurrera!"



## HAURRENTZAKO TAILERREN ARRAKASTA



Pandemiak eragindako etenaldiaren ondoren, aurten ULMAko langileen seme-alabentzako haur tailerrak antolatu ditugu berriro. Ekainaren 5etik 22ra, 4 eta 12 urte bitarteko 60 hurrek baino gehiagok parte hartu dute ULMA Taldeko Departamentu Zentraletan egin diren tailerretan.

Tailerren gaia **“Ingurumena eta klima aldaketa”** izan da, eta ingurunea zaintzeak duen garrantzia ikasi dute modu dibertigarrian, esperimenduak, eskulanak, ginkanak eta abar eginez.

Udako tailerrekin, gure aletxoak jarri nahi izan dugu **lana eta familia bateragarria izatea** bezain gai garrantzitsuan. Bereziki ekainean, etxeko hurrek ez baitute eskolarik arratsaldean, eta hori arazo bat izan daiteke familientzat. Saiatu gara eskaini



dugun ordutegiak (14:00etatik 18:00etara) eta gurasoen lan ordutegiak ahalik eta gehien bat egiten dezaten, eta hurrek utzi eta jasotzeko ordutegian malgutasunez jokatu da.

4 ETA 12 URTE BITARTEKO 60 HAURREK BAINO GEHIAGOK PARTE HARTU DUTE ULMA TALDEKO DEPARTAMENTU ZENTRALETAN EGINDAKO TAILERRETAN, EKAINAREN 5ETIK 22RA

## ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK-EK BERE KATALOGOA ZABALDU DU HANGCHA GEHITUTA



ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK ERAKUNDEAK HANGCHAREKIN EGINDAKO BERRI DUEN ALIANTZA IRAGARRI DU; ENPRESA NABARMENA DA MANTENTZE LANEN SEKTOREAN.

Horrela, **Mitsubishi Forklift Trucks produktuen katalogo nagusia osatzen du, kalitatea eta kostua ezin hobeto orekatzen dituen aukera bat** eskaintzeko.

Hangcha ezaguna da fidagarritasunagatik, iraunkortasunagatik, eraginkortasunagatik eta berrikuntza teknologikoarekin eta

bezeroarentzako zerbitzu bikainarekin duen etengabeko konpromisoagatik. Bere produktu gamak aukerak zabaltzen dizkie kalitate handiko mantentze soluzioak prezio optimizatu batean bilatzen dituzten bezeroei.

Hangcha ULMAren portafolioan sartuta, ULMAk neurrirako soluzioen eskaintza are gehiago zabaltzea nahi du, bezero gero eta anitzagoen beharrak asetzeko helburuarekin.

Gainera, negozioen logistika eta mantentze lanen erronkei aurre egiteko, soluzio moldakor eta errentagarriak ekarriko dituela agindu du. Horrenbestez, bezeroen behar eta lehentasunetara egokitzeko USMk duen etengabeko konpromisoa berresten da.

## 20 URTE DIRA AJOFRINEN, TOLEDON, EGOITZA IREKI GENUENETIK



2003KO MARTXOAN, AJOFRINGO EGOITZA INAUGURATU ZEN, TOLEDON. MADRILGOAREKIN BATERA, ULMAREN ESPAINIAKO ERDIALDEKO DELEGAZIOA OSATZEN DU.

**22 langilerekin hasi zen lanean, eta, gaur egun, 140 profesionalen osatutako talde bat du egoitzak**, hasierako ilusioari eta gogo biziari eutsi diotenak, beharrezkoak baitira proiektu komun hori indartzeko. Hain zuzen ere, egoitzaren hasieran protagonista izan ziren pertsonetako batzuek ULMAko lantaldeko kide izaten jarraitzen dute gaur egun ere. Talde horren kualifikazioa, inplikazioa eta konpromisoa dira bezero eta laguntzaileekin harreman iraunkorak eta konfiantzazkoak izateko gakoa.

Ajofringo zentro logistikoa, gainera, ULMAren **sare eta zerbitzu logistikoaren funtsezko zati bat da, entrega denborak murriztera eta kalitatezko eta konfiantzazko zerbitzua eskaintzera bideratua.**



## ULMA EMBEDDED SOLUTIONSEK BULEGOA IREKI DU DONOSTIAN

ULMA Embedded Solutionsek bezeroen beharrei erantzunik onena emateko lan egin du hasieratik, duela 13 urte sortu zenetik. Arreta bezeroengan jarriz, merkatuan duen presentzia handitzen joan da, besteak beste, eta azken urteetan inoiz baino gehiago ikusi du haiengandik hurbilago egoteko beharra.

Helburu hori betetzeko, hasteko, ingeniari eta komertzial talde bat sortu zuen Madrilen eta Bilbon, eta orain negozioaren hedapena haratago joan da, **azken hilabete honetan Donostian ireki duen bulegoarekin. Bertan lan egiten du automobil eta tren sektorerako sistemen ingeniaritzan espezializatutako taldeak.**



ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

Bulego berriaren helburua, talentua erakartzeaz gain –ULMA Embedded Solutionsentzat erronka izaten ari da, oso profil bereziak behar direlako–, bezero gako batzuegandik gertu egotea eta penintsulako eta inguruko

herrialdeetara bizkor joan ahal izatea da. Bulegoa Miramongo Parke Teknologikoan dago, non sektore teknologikoko hainbat enpresa dauden.

## AUTOMATIZAZIO EFIZIENTEA ETA ONTZIRATZE JASANGARRIA FRUIT LOGISTICA 2023AN



ULMA PACKAGING

Ingurumenean inpaktu txikiagoa duten materialak

WeCare proiektuaren ildotik, ULMA Packagingek eskaintza zabala erakutsi du Fruit Logistica azokan, **ontziratzeko jasangarriko soluzioak eta automatizazio efizienteak uztartzen dituen Flow pack (HFFS), Termozigilatutako eta Bertikal (VFFS) lerroetan.**

Ekipo horiek VENTURI™, TIGHT-BAG™ eta BETTER-SEAL™ teknologiak dituzte, eta, horiei esker, ontziratzeko materiala

murrizten da, gehiago birziklatu eta konpostatu daiteke, eta elikagaien segurtasuna eta gutxiago xahutzea bermatzen dute. Gainera, material alternatibo berriak dituzte, bizi zikloaren amaieran ontziak birziklatzen laguntzen dutenak, eta paper zuntzean oinarritutako material berriztagarriekin edo birziklagarritasun handiko monomaterialekin lan egiten dute.

Aldi berean, lerro horiek

automatizazio efizienteagoa eskaintzen dute Packaging Automation eta Digital bidez. HMI bat daukate, 4.0 Industriaren ingurune batean jarduteko eta integratzeko lanak errazteko gaitasunak handitzen dituenak, eta konektibitate aukerak ere handitzen dira, urruneko sarbidearen bidez eta MES eta ERP sistemak OEE analisirako tresnekin integratuta, bai ekipoan bertan, bai myULMA atariaren bidez.

## ULMA AGRICOLAK EKOIZPEN LANTEGIA ETA BULEGOAK ESTREINATU DITU



ULMA AGRICOLA

44 URTEZ ULMA CONSTRUCTIONEN INSTALAZIOEN BARRUAN ARITU ONDOREN, ULMA AGRICOLAK BERE EKOIZPEN PLANTA BERRIA ETA BULEGOAK IREKI DITU OÑATIKO TORREAUZO AUZOAN.

Lorpen hori mugarri garrantzitsua da enpresarentzat, bere funtzioak behar bezala garatzeko espazio propioa izatea ahalbidetuko baitio. **Instalazio berriarekin, ULMA Agricolak bere produktuen eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko konpromisoa hartzen du, baita eskualdearen hazkunde ekonomikoan laguntzeko ere.** Horrez gain, azpimarratu dute

ekimen honek kooperatibaren etorkizuneko arrakastarako katalizatzailea izatea espero dutela.

Industria lantegi berriak 5 tonako 4 garabi, 30 metroko nabe barea, 8 karga eta deskarga nasa eta itsas edukiontzietarako karga azkarreko plataforma bat ditu. Horri, 8000 m<sup>2</sup>-ko biltegi bat gehitzen zaio, siloz eta apalategiz hornituta, lehengai

zein amaitutako produktua biltegitratzeko. Eraikinaren diseinua energia eraginkortasunik onena bilatuz egin da, eta intrusioaren aurkako zirkuitu itxi bat eta ateetako sarbide automatikoak ditu.

ULMA Agricolak “harro egoteko moduko” eraikin bat ahal bezain laster inauguratzea espero du.

## ULMA HANDLING SYSTEMS IZANGO DA MUGIKORTASUN ETA LOGISTIKA KLUSTERRAREN BURU

Ekainaren 2an MLC ITS Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterraren XX. Batzar Nagusia egin zen. Bertan aho batez erabaki zen **ULMA Handling Systemsek hartzea Klusterraren lehendakaritza**, Eduardo Lasa Ramirez ordezkariarekin.

Ekitaldira elkartutako 50 bat erakundetako ordezkariak bildu ziren, eta Zuzendaritza Batzordeko goi karguen erreleboa berretsi zuten, elkartearen estatutuek ezartzen dutenez.

Horrenbestez, **Eduardo Lasa da Klusterraren lehendakaria**,



ULMA HANDLING SYSTEMS

Autobuses La Unioneke Joakin Acharen ordezkariak, agintaldiaren iraupena osatu baitu.

Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterra mugikortasunari

eta logistikari lotutako hainbat enpresaren elkarte bat da. Enpresen arteko lankidetzaren proiektuak sustatzen ditu, hala nola berrikuntza proiektuak, produktuen garapena edo azpiegiturak.



## DRAINATZE SOLUZIO BEREZIA ZARAGOZAKO PILAR PLAZA ENBLEMATIKORAKO

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS



Zaragozako Pilar plaza ospetsua birmoldatu dute, eta **huri urak ebakutzeko** D400 kargak jasango dituen sistema bat behar zuten. Izan ere, oinezkoentzako plaza den arren, Pilarreko festetan, adibidez, bertan muntatzen dira kontzertuak egiteko agertokiak, eta, beraz, kamioiak igarotzeko gune bihurtzen da.

Estetikoki, **plazaren edertasuna mantendu** beharra zuten, eta horregatik aukeratu zen **ULMAren drainatze sistema ezkutua**. Baina arazo bat zegoen: jabeek ez zuten nahi multzo erregistragarria ere artekatua izatea.

Premisa horren aurrean, ingeniariak departamentuak beste aukera bat diseinatu du: euskarri berezi bat, kaxoi berezi batekin, sareta artekatua eta erregistroko sareta nerbiduna maila berean geratzeko altuera zehatzarekin.

Beste behin, ULMA Architectural Solutionseko ingeniariak departamentuak gaitasuna erakutsi du proiektu bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako soluzioak sortzeko.

## ESE ERRE, ANAPATEN 29. KONBENTZIOAREN ZILARREZKO BABESLEA

ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK



Ese Errek, ULMA Manutentzio Zerbitzuak-en ordezkoiak eta kontsumigarriak saltzen dituen dibisioak, sektorearekin duen konpromisoa erakutsi zuen ANAPATen Bazkideen Batzar Nagusian eta 29. Konbentzioan. Zilarrezko babesle gisa, Ese Errek sektoreko eragile garrantzitsuekin partekatu zuen lekua topaketa garrantzitsu horretan.

Konbentzioa Murtzian egin zen, eta **mugarri bat ezarri zuen pandemiaren osteko susperraldian**, eta datorren urtean ANAPATek ospatuko duen 30. urteurrenaren atariko izan zen. Ekitaldiak sektorearen sendotasuna eta batasuna nabarmendu zituen, etorkizunari eta datozen erronkei begira.


Bere erreferentzia gama nabarmenarekin, **Ese Errek ekitaldia aprobetxatu zuen harremanak lantzeko eta bere eskaintza aurkezteko**. "Hazteko, prestakuntza"

gaiaren parte hartu zuen, sektorean prestakuntzak duen garrantziaz hausnartuz. Konbentzioan, ANAPATen 2022ko jarduerak eta 2023rako proiektuak eztabaidatu ziren, Marc Vidal ekonomistaren hitzaldi berezi batekin.

Ese Erreren parte hartzeak sektorearen hazkundearekin duen etengabeko konpromisoa azpimarratu du. Ekitaldian egoteak enpresak industriaren garapenaren parte aktiboa izaten jarraitu nahi duela erakusten du.

## JASANGARRITASUNA, KONPROMISO SENDOA ULMA FORGED SOLUTIONSENEN

ULMA FORGED SOLUTIONS



Jasangarritasuna kezka globala da dagoeneko, eta egungo beharrak hurrengo belaunaldienak arriskuan jarri gabe asetzea gizarte osoaren erronka bihurtu da.

ULMA Forged Solutionsen, enpresa kooperatiboa den heinean, erantzukizuna, parte hartze demokratikoa, ekitatea eta elkartasuna dira bere ekintza eta erabaki guztien oinarria, eta berezko asmoa dute jaso dutena baino ULMA Forged Solutions hobea uzteko.

Etorkizun jasangarria bermatzeko erronka horretan, ULMA Forged Solutionsek aitortzen du beharrezkoa dela trantsizio energetikoa egitea, iturri garbiagoak eta berriztagarriak erabiltzeko. Ulertzen delako klima aldaketaren aurkako borrokari eta emisioak murrizteari egindako ekarpena erabakigarria dela

ULMA FORGED SOLUTIONSEK AITORTZEN DU BEHARREZKOA DELA TRANTSIZIO ENERGETIKOA EGITEA, ITURRI GARBIAGOAK ETA BERRIZTAGARRIAK ERABILTZEKO.

etorkizun jasangarria ziurtatzeko. Horregatik, karbono azterna kalkulatzeko konpromisoa hartu dute, eta horrek aukera emango die ingurumen inpaktua zehatz-mehatz ebaluatzeko eta datozen urteetan egin beharreko urratsak zehazteko.

Gaur egun, **karbono azternaren balioa kalkulatu dute 1. eta 2. irismenetan, zuzeneko eta zeharkako emisioetan, eta uda aurretik hirugarren irismena lortzeko lanean ari dira**, horrela, ingurumen inpaktua murrizteko ziklo bat hasteko, adierazle argi eta neurgarri batekin.

## HELBURU BERRIA, ZERO HONDAKIN



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

INGURUMENA ZAINTEKO HELBURUAREKIN, ULMA CONVEYOR COMPONENTS "ZERO HONDAKIN" PROIEKTUA LANTZEN ARI DA BIZIKI.

Produktuaren oinarritzko printzipioa da produktuak berrerabiltzea, ez daitezen naturara hondakin edo zabor moduan itzuli.

Horretarako, isuriak kontrolatzeko ekipamendu espezializatua instalatu dute eta langileei formazio espezifiko eman diete. Lurrean amaitu dezaketen emisio kutsatzaileak prebenitzeko tratamendua ere hobetu da.

Gainera, hondakinen kudeaketa efizientea gehitu behar da, **zaborte gira bidaltzen diren hondakinak %90 murriztea lortu baita. Hondakin horiek kentzeko garraio kopurua ere optimizatu da, eta, ondorioz, karbono azternaren inpaktua %10 hobetu da.**

Alegia, ULMA Conveyor Componentsek mentalitatea, ohiturak eta ekoizpen eredua aldatu nahi ditu, jasangarriagoak eta arduratsuagoak izateko eta hondakin gutxiago sortzeko.



## AJUSAK ULMAREN SHUTTLE-M SISTEMEN ALDE EGIN DU

Ajusa enpresa –Albaceten dago– liderra da **motorreko osagaien munduko fabrikazioan eta banaketan**. Bere produktu izarra kulata junturak dira, eta, errekontza motorraren alde egin duenez, teknologia hori desagertzen ari ez den merkatuetan sartzen ari da, Ipar Amerikan, esaterako.

Zabalkunde hori gauzatzeko, Ajusak ekoizpen ahalmena areagotu behar izan du, egungo baliabideak mantenduta baina stockeko erreferentzia kopurua %20 handituz. Horregatik jarri dute konfiantza ULMArengan.

Planteatutako proiektuan **eskaerak prestatzeko zentro automatiko bat dago, SHUTTLE-M sistemako hiru pasabidek** (bi pasabide gehiagorekin handitzeko aukerarekin), eta zortzi picking



ULMA HANDLING SYSTEMS

estaziok (beste bi estazio gehiago jartzeko asmoarekin) osatua. Picking estazioetako bi merkatu nazionalerako eskariak prestatzen arituko dira, eta gainerako seiak esportazioan eta barne eskarietan (kitak prestatzeko). Gainera, proiektuak sei estazio izango ditu salgaiak biltegi berrian sartzeko,

non orduko 1.200 kubeta mugitzeko gaitasuna egongo baita, sarreretan zein irteeretan.

Adierazi behar da oso mugarri garrantzitsua dela bai ULMArentzat, bai DAIFUKUrentzat, ULMAK merkatu nazionalen saldutako bigarren SHUTTLE-M sistema baita.


## PATTULLO ZUBI BERRIA KANADAN

PATTULLO ZUBIA KANADAKO NEW WESTMINSTER ETA BRITISH COLUMBIAKO SURREY ARTEKO BIDE-LOTURA GAKOA DA.

Fraser ibaia zeharkatzen duen zubiak 80 urte baino gehiago ditu, eta segurtasuna eta trafikoa hobetuko dituen egitura berri batek ordezkatzen du.

ULMAK zubi berria eraikitzeke proiektuan parte hartzen du. Zubi horrek, ibilgailuen zirkulaziorako noranzko bakoitzean bi errei izateaz gain, oinezkoentzako eta bizikletentzako bideak izango ditu, segurtasuneko erdibitzaile batez berezita.

Eraikuntza-proiektu ikusgarri honetan **ULMAK bere enkofratu sistemak eskaini ditu, hala nola MK zertxa bereziak, ENKOFORM HMK zubien lauzako enkofratua eta aurrez montatutako lauzako VR Mahaia**.



ULMA CONSTRUCTION

## TERMOZIGILATZE LERRO AUTOMATIKOA NABARMENDU DA INTERPACK 2023AN

ULMA PACKAGING



ONTZIRATZEKO PROZESUEN AUTOMATIZAZIOA DA ULMA PACKAGINGEN IKUSPEGIAREN FUNTSEZKO ARLOETAKO BAT, ETA BERE TERMOZIGILATZE LERRO AUTOMATIKOA IZAN DA INTERPACKEN STANDEAN NABARMENDU DIREN INSTALAZIOETAKO BAT.

TSA 1000 D termozigitzeko makina bikoitza daraman lerro hori **efizientzia maximizatzeko diseinatu da, minutuko 120 erretilu arteko ekoizpena irits daiteke eta geldialdi denborak minimora murrizten dira.**

Horrez gain, ULMA Packagingeko ingeniari espezializatuak arduratzen

dira lerro horren eta beste batzuen diseinuz, muntaketaz, entregaz eta laguntza teknikoaz, bezeroei lerroaren bizitza baliagarrian zehar alderdi eta behar guztietan laguntzeko.

ULMAren WeCare ontziratze jasagarria ere oso presente dago lerro automatiko horretan.

Ekoiztako ontzia %100 birziklagarria da, egiteko erabiltzen diren materialak erabat birziklagarriak baitira. Horren ondorioz, Interpacken erakutsitako instalazioak eta gainerako soluzioek argi erakusten dute ULMA Packaging bezalako hornitzaile bat edukitzearen onura, ontziratzeke lerro automatikoak eskuratu nahi direnean.

## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONSEK BIDEOA ESTREINATU DU

Hainbat hilabetez errealizazio eta ekoizpen zaindu bat landu ondoren, ULMA Architectural Solutionsek bere bideo korporatibo berria aurkeztu du.

Ikus-entzunezko pieza horretan, drainatze eta arkitekturako soluzio berritzaileak eta pertsonalizagarriak erakustez gain, lanaren atzean dauden profesionalen taldea ezagutarazi nahi izan dute.

Izan ere, azaldu duten bezala, **pertsonak dira ULMA Architectural Solutionsen bihotza, eta profesional bakoitzak taldean lan egiten du, planetan eragin positiboa lortzeko eta bezeroen beharrak asetzeko.**

Bideo berria egiteko, mundu osoan zehar bidaiatu dute aldian-aldian ULMA Architectural Solutionsen soluzioak eta produktuak ekinean grabatzeko; Brasiletik Finlandiaraino, nazioarterako bokazioa eta irismena islatzeko.



Eskaneatu QR kodea eta gozatu!

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

Baina bideoa benetan berezi bihurtzen duena da Architectural Solutionseko lankideek ikus-entzunezko lan berri honen xehetasun bakoitzean jarri duten maitasuna eta gogo bizia.



## ULMA CONVEYOR COMPONENTS KANADAKO CIM 2023 CONVENTION + EXPON

Industriako 7.000 profesional baino gehiago elkartu ziren Montrealen (Kanada), apirilaren 30etik maiatzaren 3ra, CIMen Urteko Konbentzio + Erakusketan **konektatzeko, ikasteko eta elkarlanean aritzeko.**

Arbingerreko bazkide gerente Mitch Warnerrek inaugurazio egunean, hasierako diskurtsoarekin, hainbat kultur komunitetara egokitzeko konfiantza sortzeak eta mentalitatea aldatzeak duen garrantzia azpimarratu zuen. Egoera globala ziurgabetasunezkoa izan arren, konbentzioko parte hartzaileek plan bat identifikatu zuten, mundua deskarbonizatze behar den konfiantza eraikitze.



Erakusketan agerikoa zen 470 erakusketari baino gehiagoren energia bizia, eta sektoreko profesionalak 2.500 bisitari baino gehiagorekin hitzeginahalizantzen. **ULMA Conveyor Components** ere izan zen Konbentzioan, eta

**azken nobedadeak aurkezteko** aprobeztatu zuen, baita standera hurbildu ziren **partner eta eragile posibleekin konektatzeko** ere, zeinek soluzio eta produktuei buruzko interes handia erakutsi zuten.


ULMA CONVEYOR COMPONENTS

## ODOLA EMATEA, KONPROMISO SOZIALAREN PARTE

ULMA Manutentzio Zerbitzuak enpresak odola emateko jardunaldia antolatu du, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearekin elkarlanean. Ekimena Pertsonen Kudeaketako arduradun Aitzol Guridi Zubiak koordinatzen du, eta aurtengo programatu diren bi jardunaldietako lehena da, **balio kooperatiboekiko eta erantzukizun sozialarekiko konpromisoa** erakutsiz.

Enpresa jardueratik haratago gizarteari laguntzeak duen garrantzia jabetuta, USMko langileak aktiboki inplikatu ziren ekimenean, eta lanegunaren zati bat kausa horretara bideratu zuten.

Odola ematea ekintza erraza da, baina eragin erabakigarria du, behar dutenei bizi babesa ematen dielako. Odola emateko ekimenarekin, ULMAK



komunitatearekiko konpromisoa berresten du, eta indartu egiten du **“ekintza bakoitzak, txikia izan arren, aldaketa ekar dezakeelako”** ideia.

Odola emateko hurrengo eguna urtearen amaierarako programatu da, talde osoaren parte hartze aktiboa mantentzeko itxaropenarekin.

ULMA SERVICIOS DE MANUTENCIÓN

## IBON CALVO, ULMA TALDEKO LEHENDAKARI BERRIA

Ibon Calvo, gaur egun ULMA C y E, S. Coop.eko Kontseilu Errektoreko lehendakaria, ULMA Taldeko Kontseilu Orokorreko lehendakari berria izateko aukeratu dute ULMA Taldearen Ohiko Batzar Nagusian, 4 urteko aldi baterako. Ibonek Lander Diaz de Gereñuren lekua hartuko du, Landerrek 2019ko ekainetik zuen-eta kargu hori. Ibon goi mailako ingeniari mekanikoa da, eta 2001ean sartu zen ULMAn.

ULMA Constructionen I+G sailean garatu du bere ibilbide profesionala, lehenik I+G teknikari gisa eta ondoren produktu kudeatzaile gisa. Kontseilu Errektoreko kidea izan zen 2011tik 2014ra, eta 2019az geroztik hango lehendakaria da.



ULMA TALDEA

## ULMAREN ETA GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Maiatzean sinatutako akordioa, hiru urteko indarraldiarekin (2023-2025) sinatu zen. Sinadura ekitaldian alde batetik, ordura arte ULMA Taldeko lehendakari izandako Lander Diaz de Gereñuk eta Guggenheim Bilbao Museoko zuzendari nagusi Juan Ignacio Vidartek parte hartu zuten.

Hitzarmenarekin, ULMAk bat egiten du Kide Korporatiboen programarekin, Enpresa Elkartuen kategorian, eta, horri esker, onura eskusibo batzuk jasoko ditu, hala nola espazioak ekitaldi korporatiboetarako erabiltzeko aukera, bisita gidatuak, Museoak berak antolatutako ekitaldietan parte hartzea edo sartzeko abantailak sarrera gonbidapen kopuru handi bat dagoenean, interesa duten kolektiboen artean banatzeko.

Gainera, Museoak bere webgunean behin-behineko erakusketetarako bisita birtualak aurkezten ditu, eta Guggenheim Bilbao Museoko kide korporatiboek, tartean ULMAk, erakusketa bakoitzaren lehen hilabeteetan haietara sartzeko aukera izango dute, publiko guztiarentzat eskuragarri egon aurretik.



ULMA TALDEA

## WALTHERPARK, ERAIKUNTZA PROIEKTUA BOLZANOKO ERDIGUNE HISTORIKOAN

WaltherPark Bolzanon, Italian, hiriaren erdigunean dagoen auzo baten **hiri birkalifikazioarako egindako proiektu bat da.** Auzoa, zehazki, Bolzanoko tren geltokitik Bolzanoko Katedralaren ondoan dagoen eta hiriko plaza nagusia den Walther plazara bitartean dago, eta proiektuaren asmoa da auzoa berregituratzea eta balioan jartzea.

Proiektuak, 16.000 m<sup>2</sup> inguruko azalera hartzen duenak, aurreikusten du funtzio anitzeko eraikin berri bat egitea Bolzano hiri alpetarraren erdigune historikoan, WaltherPark turismorako gun e interesgarria eta erakargarria izan dadin laguntzeko. Erabilera mistoko eraikin multzoa da, eta merkataritza gun e bat, aparkalekuak, bulegoak, jatetxeak, etxebizitzak eta kalitatezko hotel bat izango ditu, baita berdegune zabalak ere.

Proiektu honetarako, **ULMAk produktu gama zabala jarri du eta bezeroarekiko lankidetz a etengabea izan da, obraren edozein arazo konpondu ahal izateko.**



ULMA CONSTRUCTION



## ULMA FATXADA AIREZTATUAREN SOLUZIOA THE KUBEN

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS



THE KUBE TARRAGONA HIRIAN PROIEKTATUTAKO ERAIKIN MULTZO BAT DA, BENETAN HARRIGARRIA, BERE BOLUMEN JOKOAREKIN ETA 19 SOLAIRUKO DORRE IZUGARRIAREKIN.

Proiektuaren zuzendaritza fakultatiboak ULMA Architectural Solutionsen alde egin du eraikinen multzoan fatxada aireztatuaren soluzioak sartzeko. Gainera, oso premisa argi bat planteatu dute: **fatxadei erritmo bertikala ematea eraikinen bolumenen eta dimentsioen inguruan.**

Eskaera horren aurrean, ULMAk **miniuhin testura duen fatxada aireztatu** bat proposatu du, Stoneok eskaintzen duen akaberen gamakoa. Kasu honetan, akabera bat, non leihoak inguratzen dituen perimetroa URA testurarekin estalita dagoen, miniuhin bertikalarekin eta akabera ilunarekin.

Baina, zalantzarik gabe, proiektu honen konplexutasun nagusia exekuzioa izan da. Eraikinetako leihoak inguratzen dituzten kuboetako bakoitzak **neurri desberdinak eta** irregularrak ditu, eta horrek **xehetasun eta arreta lan handia eskatu du ULMA Architectural Solutionseko teknikari eta instalatzaileen taldearen aldetik.**

## ULMAK BI ANBULANTZIA EMAN DITU UKRAINARAKO

Ukrainari laguntzeko programaren barruan, ULMAk **bi ambulantzia medikalizatu** erosi eta eman ditu, **sortzen diren larrialdi eta premiei erantzuteko**. Horretarako, Ukrainako hainbat boluntarioren laguntza izan dute, ekaineko hirugarren astean ambulantziak Ukrainara eramateko.

**Bi ambulantzia horien erosketaren zati bat ULMAko langileek emandako diruaren bidez finantzatu da. Dohaintzak, guztira, 7.691 €-koak izan ziren.**

ULMAk eskerrak eman nahi dizkizue kausa solidario honetan zuen aletxo jarri duzuen guztioi. Ukrainari laguntzeko programako proiektu humanitarioak errealitate bihur daitezela elkarlanean jarraituko dugu, eta gauzatzen joan ahala ezagutarazten joango gara.




ULMA TALDEA

## BEZEROARI ZERBITZURIK ONENA ESKAINTZERA BIDERATUTAKO PRODUKTU ADIMENDUNAK

ULMAk garatutako tresna digitalek adimena ematen diete beren produktuei, eta barne-prozesuak optimizatzen dituzte, bezeroari zerbitzurik onena eskaintzeko. Laser bidezko eskaneatzea, adibidez, BRIO eta DORPA aldamioren REVITeko liburutegiekin eta ULMAren Scaffmax ® konfiguratuzailearekin batera, aldamioren aplikazioa errazten duen tresna eraginkorra da.

Abantaila aipagarrienen artean **segurtasuna eta zehaztasuna** daude, eraikinen erreplika zehatza lortzen baita, eta aldamiorekin aplikazioa eta obrara bidalitako materialak bete-betean datoz bat, prozesuan zehar aldaketak saihestuz. Neurketak eraikinen edo egituraren 3D eredu zehatza irudikatzen duen



puntu hodei bat emango digu, aldamioren aplikazioaren azterketa **azkarrago eta eraginkorrago** bat ahalbidetzen duena. Antolaketa logistikoa eta material horniduraren kalkulua hobetzeak, **kostuak murriztea eta produktibitatea handitzea** ere badakar.



ULMA CONSTRUCTION

## INOXTRUCKEK BERE ESTRATEGIA DIGITALA INDARTU DU ELORA PLATAFORMAREKIN

Lehiakortasuna bizkortzeko mugimendu estrategiko batean, Inoxtruckek iragarri du Elora PLMrekin lan egingo duela, produktuaren bizi zikloa kudeatzeko plataforma aurreratuarekin.

Inoxtruck, ULMA Manutentzio Zerbitzuen negozio unitatea, produktuaren maneia berritzen ari da, **produktuaren bizi zikloa kudeatzeko abangoardiako open source sistema** baten bidez: Elora PLM. **Produktuaren garapenaren alderdi guztiak zentralizatzen ditu**, informazioaren digitalizazioa eta elkartutako prozesuak sustatuz.

4.000 ekipo baino gehiago merkaturatu ondoren iritsi da erabakia, eta horrek kudeaketa

eta jarraipen eraginkorra egiteko eskaera gero eta handiagoa dela erakusten du. "Datorren hamarkadan gure produktuen bizi zikloa modu efizientean kudeatzeko oinarriak ezartzen ari gara", adierazi du Fernando Odriozola Inoxtruckeko zuzendariak.

Plataformak lehiarako abantaila asko ditu, hala nola segurtasun sendoa, dokumentuen kudeaketa aurreratu, CAD integrazioa eta departamentuen arteko lankidetzaren erraztea, hori guztia kostu gehigarriarik gabe. Gainera, bilaketa motor indartsuak, prozesuen kudeaketa eraginkorra eta ingeniariartzako aldaketen kontrol automatikoa eskaintzen ditu.



ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK



2023ko ekainaren 9a

OMENALDIA ULMAKO ERRETIRATUEI

# Gogoratzeko eta ospatzeko eguna

Ekainaren 9an 300 erretiratu inguruk ospatu zuten Oñatin beren egun handia. Oso ekitaldi hunkigarrian, ULMAko lantegiak bisitatu eta lankideekin berriro elkartu ahal izan ziren, Zubikoa kiroldegian egindako bazkarian.



>> Bazkariaren ikuspegi orokorra Oñatiko Zubikoa kiroldegian



Eguna ULMAk Oñatin dituen negozioetara egindako bisitekin hasi zen. Batzuek urtetan beren lantokiak izan zirenetara itzuli nahi izan zuten. Beste batzuek, berriz, aukera baliatu zuten auzoa Zubillagan edo Torreauson irekitako lantegi berriak ezagutzeko, besteak beste. Bisita horiek aukera ezin hobe izan ziren azken urteetan egindako aurrerapen teknologikoak bertatik bertara ikusteko.

Goizean, gainera, ongiatorri eta aurkezpen ekitaldia egin zen ULMAko Departamentu Zentralen auditorioan, eta Iñaki Gabilondo zuzendari nagusiak eta Lander Diaz de Gereñu Taldeko lehendakariak Taldearen gaur egungo egoera

sozioenpresarialaren errebasoa egin zuten.

Bazkaria, Zubikoa kiroldegian

Bisitak amaituta, erretiratuak pixkanaka Zubikoa kiroldegira hurbildu ziren, non omenaldi-bazkaria izan zuten, musikaz lagunduta, eta sorpresatxoren bat edo besterekin.

Guztientzat oso berezia izan zen jardunaldia amaitzeko, bidaia bat zozketatu zen Istanbulera eta beste bat Amsterdamera, eta jai giroak Joseina Etxeberria Djaren musikarekin jarraitu zuten, arratsaldearen azkenetara arte.

*"Eskerrak eman nahi dizkiegu erretiroa hartu duten pertsona horiek guztiek ULMAri urte askoan eskaini dioten konpromisoagatik. Ahalegin hori funtsezkoa izan da proiektu kooperatibo honek arrakasta izateko, eta proiektu horren parte izaten jarraituko dute beti"*

**LANDER DIAZ DE GEREÑU**  
ULMA TALDEKO LEHENDAKARIA

Jai amaitu zenean, erretiratuak egun hunkigarri baten emozioarekin joan ziren, eta hurrengoaren zain.

Arrazoi geografikoengatik Oñatiko ekitaldira joaterik ezin ez zuten ULMAko ordezkarietako erretiratuei ere detailtxo bat helarazi zien ULMAk, egindako lana eta dedikazioa eskertzeko.



Eskaneatu QR kodea

## Lekukotzak

**JUAN CARLOS BARRENA**

*"Eguna oso ondo joan zen. Oso gustura egon nintzen bazkarian eta bisitan. Egia da erretiroa duela oso gutxi hartu dudanez ez nuela bisitan aldaketa handirik ikusi, baina berriro lankide ohiekin egon ahal izan nintzen".*

**BEGOÑA URRESTARAZU**

*"Dena ezin hobeto joan zen. Oso gustura egon ginen, eta aspaldi ikusten ez nuen jendearekin berriro egotea oso polita eta hunkigarria izan zen. ULMAko Erretiratuen beste omenaldi bat antolatzen bada, seguru joango naizela".*

**JOSE MARI BENGOA**

*"Oso esperientzia polita izan zen. ULMA Architectural Solutionsen planta bisitatzeko aukera izan nuen, egon diren aldaketa guztiak ikusteko. Gainera, bisitan zehar eman zizkiguten azalpenak oso interesgarriak izan ziren. Bazkaria ere oso ondo egon zen, eta, Djak jarri zuen giro onarekin, dantza egitera ere animatu ginen".*



>> Omenaldi eguneko une desberdinetako irudiak: Negozioetako bisitak, ohorezko aurrekua, bazkariko ospakizuna, etab.



# Bizitza osasungarri baterako errezeta



>> Amaia Diaz de Monasterioguren dietista-nutrizionista

**Elikadura ona eta ohitura osasungarriak izatea oso garrantzitsua da, etxean zein lanean. ULMA n lan espazio osasungarria sustatzen dugu arlo guztietan, eta, horregatik, maiatzean Nutrizio Ikastaroa antolatu dugu.**

Amaia Diaz de Monasterioguren dietista-nutrizionista arduratu da maiatzeko astelehenetan Nutrizio eta Ohitura Osasungarri buruzko eskola teorikoak/praktikoak emateaz, ULMAko Departamentu Zentraletan. Amaia Diaz de Monasterioguren azpimarratu duenez: *"Langileen ongizaterako funtsezko faktore bat da"*.

Ikastaroan parte hartu zuten 25 lagunek, besteak beste, gai hauek ikasi zituzten: nork bere burua zaintzearen eta entzutearen garrantzia, norberaren beharren arabera menua prestatzearen garrantzia eta sasoiko produktuak erabiltzearen garrantzia.

Eskolek ordu eta erdi inguruko iraupena zuten, eta zati teorikoak ariketa praktikoekin uztartu ziren. Amaiak azpimarratu du parte hartzean gizonek zein emakumeek, adin desberdinetakoek eta lan eremu askotarikoek, esperientzia desberdinak batu ahal izan dituztela, eta parte hartzaile bakoitzaren beharretara egokitutako aholkuak eta adibideak eskaini ahal izan dituela.

## Teoriatik praktikara

Lehen egunean osasunaren eta ongizatearen 7 zutabeak aurkeztuta abiatu zen ikastaroa. Klase teoriko bat, nork bere burua zaintzearen eta gorputza entzutearen garrantzia ulertzeko balio izan zuena, une bakoitzean zer behar den jakiteko.

Teoriatik eskola praktikoagoetara igaro zen: Nola prestatu asteroko menu orekatuak, gose fisikoa eta gose emozionala bereizten jakitea eta sasoiko eta tokiko elikagaiak identifikatzea. Gainera, Amaiak errezeta praktiko, osasungarri eta gustagarriak aurkeztu zituen, entsalada berezi eta askotarikoak prestatzeko jarraibide praktikoekin..



**AMAIA DIAZ DE MONASTERIOGUREN**  
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

*"Ikastaroa parte hartzaileen behar eta egoera desberdinetara egokituta egon da, eta, une oro arreta pertsonalizatua eskaintzen saiatu naizenez, horrek erronka handia ekarri dit dietista-nutrizionista gisa dudaren esperientzia luzean. Baina azken emaitza oso-oso pozgarria izan da, jakinda elikadura kontzientearen bidez eta sasoiko eta tokiko elikagaien bidez zaintzearen garrantzia ikasi dutela"*.



**URKO BIAIN**  
ULMA PACKAGING

*"Oso ikastaro interesgarria iruditu zait, eta, egia esan, gehiago sakontzeko gogoarekin geratu naiz. Baloratzen dut, batez ere, oso modu dinamiko eta parte hartzailean ikasi ahal izan dugula geure burua eta ingurukoak zaintzeko tresnei buruz"*.



**DANIEL LAGUARDIA**  
ULMA HANDLING SYSTEMS

*"ULMAk antolatzen dituen ikastaro guztiak gauza berriak ikasteko aukera izaten dira beti. Nire kasuan, izena eman nuen elikatzeko modua moldatu behar nuelako. Ikastaroa oso ondo bideratuta zegoen, ikuspegi batetik baino gehiagotik, eta, dietei buruz hitz egin beharrean, ohiturak eta jarraibideak aipatu dira"*.



2023

maiatzak 1 - abuztuak 31

## ERRETIROAK



PEDRO  
NIETO



JOSEBA  
ZULOAGA



JUAN CARLOS  
ARROYO



JOSE LUIS  
MEAZA



LUIS  
UGARTE



MIGUEL ÁNGEL  
BEITIA



JAVIER  
ETXEBERRIA



MIGUEL ÁNGEL  
ARREGUI



PEIO  
ARIZMENDI



JESÚS  
HERRERA




MAITE  
ELGUERO



SANTI  
GURIDI



TERE  
JAUREGUI



SEVERINO  
RODRIGUEZ



GERMÁN  
RODRIGUEZ



FCO. JAVIER CASTAÑO

eskerrik asko eta gozatu!  
Zorionak